



Zenbait xehetasun sintaktiko neurri-sintagma batzuen inguruan:

- nola osatzen diren neurri-unitateetatik abiatuta,
- nola jokatzeko diren,
- ...

metro koadro

litro

zentimetro

hektarea

kilogramo

gramo

metro kubiko



OSAERA

ZENBATZAILEA + UNITATEA + GAIA ¹
 (hiru kilo patata)

¹ Zenbatzailea 1 delarik, honako hau da hurrenkera: unitatea + zenbatzailea + gaia (kilo bat patata); baina sinboloa erabiliz gero, orduan hau: 1 kg patata.



ADIBIDEAK

PISUA: gramo, kilogramo, tona...



- Egunean **100 gramo haragi gorri** eta **60 gramo haragi prozesatu** jatea arriskutsua da.
- **Hiru tona kokaina** zeramatzan hegazkin bat iritsi zen ostegunean aireportura.
- Horrelako edariek **ehun bat gramo azukre** dituzte.
- **Zenbat kilo barazki** erosi behar dugu?
- **Tona erdi (bat) txatarra** lapurtu dute.
- Batez beste, **kilo laurden (bat) zabor** ekoizten da etxe bakoitzean.

Oharra: hiru ordu laurden > hiru kilo laurden: **hiru kilo laurden zabor** (***hiru laurden kilo zabor**).



ADIBIDEAK

BOLUMENA: litro, zentilitro...



- Arteriako odolak **20 ml oxigeno** garraiatzen ditu **100 ml odoleko**.
- Auto horrek **bost litro erregai** baino gutxiago kontsumituko du hirian.
- **Botilatutako litro bat ur** 200 aldiz garestiagoa da txorrotakoa baino.
- **Zenbat litro esne** erosi behar dugu?
- Errezeta honetarako, **150 gramo gazta** eta **250 zentimetro kubiko esne gatz** behar dira.
- Biztanle bakoitzak **50 metro kubiko ur geza** kontsumitzen du.
- **Litro laurden (bat) ardo** erosi dugu.

Oharra: **hiru litro laurden esne** (***hiru laurden litro esne**).



ADIBIDEAK

LUZERA: zentimetro, metro, kilometro...

- Txikonek eta Salpara-k **500 metro soka** finkatu dituzte.
- Ibilgailu horiek **100.000 kilometro errepide** kartografiatu dituzte.
- Hirurehun euro ordaindu baditu, **zenbat metro soka** erosi du?
- **Lau metro oihal** beharko dituzu soineko hori josteko.
- Hamar puntu jartzeko, **metro erdi (bat) hari** beharko genuke.
- Proiektuaren arabera, **28 kilometro ibai gehiago** babestuko dituzte.
- **Milaka metro pelikula** grabatu dira.





ADIBIDEAK

AZALERA: metro koadro, hektarea...



- Arabar bakoitzari **4.500 metro koadro baso** dagozkio.
- 1935eko erroldaren arabera, Argentinak **1.100.000 metro koadro oihan** zituen.
- Monumentua erabat estaltzeko, **zenbat metro koadro oihal** beharko dituzte?
- Vyrachey-ko Parke Nazionalean, **3.325 kilometro koadro altxor ekologiko** aurkituko ditugu.
- Duela hiru urte **bi hektarea mahasti** jarri zituzten.
- **Hektarea mugurdi gehiago** landatu nahi ditu.
- **Hektarea bat lur** erosi behar izan da, horretan etxebizitzak egiteko.



NEURRI-SINTAGMA JOKATUA

ZENBATZAILEA + UNITATEA + GAIA + ATZIZKIA (mugagabea)

- Nahiz eta **10 milioi litro uretan** disolbatuta egon, hauteman dezakegu 1 mg konposatu.
- **Litro bat izotzek**, urtzen denean, ez du litro bat ur sortzen.
- **4.050 metro koadro baso(ta)tik** hiru tona burdina ekoizteko adina egur-ikatz eskuratu zitekeen.
- **Hektarea bat koltzak** 1.500 litro olio ematen ditu, eta **hektarea bat palmondok**, 6.000 litro.
- **20.350 metro koadro oihalez** eta **4.500 metro sokaz** dago eginda eskultura.



GAIA TESTUAN LEHENAGO AIPATUA

GAIA + (-)EN + ZENBATZAILEA + UNITATEA + ATZIZKIA

- Gizarteak indar guztiak bildu behar ditu **ezagutza-ahalmen horren gramo bat** ere ez galtzeko.
 - Gizarteak indar guztiak bildu behar ditu **ezagutza-ahalmen horretatik gramo bat** ere ez galtzeko.
- Beraz, kaltegarritasunari dagokionez, parekoak dira **gas horren gramo bat** eta 1,3 kilo CO₂.
- Pertsona batek **ur horren litro erdi** edango balu, urtean jasan daitekeen gehienezko erradiazio-maila jasoko luke.
 - Pertsona batek **ur horretatik litro erdi** edango balu, urtean jasan daitekeen gehienezko erradiazio-maila jasoko luke.
- **Substantzia horren gramo batek** 1200 dolar balio dezake merkatu beltzean.
- **Hautatu dugun pintura horren kilo batez** zenbat metro koadro margotu dezakegu?



NEURRI-SINTAGMA + *bakoitz*

UNITATEA + GAIA + BAKOITZ + ATZIZKIA

- **Kilo haragi bakoitzeko** hogei pezeta galduz. (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*)
- **Kilometro ur bakoitzean**, 34,4 gramo gatz dago batez beste.
- Estoldetatik irteten den **litro ur bakoitzak** hesteetako 4 milioi hozi daramatza.
- Ekotasa indarrean dagoenean, 2,79 euro ordaindu beharko dira **metro kubiko gas bakoitzeko**.



Zenbait testuingurutan (salerosketan, batik bat), *bat* zenbatzailearen ordeztze-a determinatzailea erabil daiteke; halakoetan, bi hurrenkeratan agertzen dira unitatea eta gaia:

- Zenbat pagatu duzu **patata kilo**a?
- Zenbat pagatu duzu **kilo patata**?
- Herrialde bakoitzean prezio desberdinean saltzen dute **ardo litro**a.
- Herrialde bakoitzean prezio desberdinean saltzen dute **litro ardo**a.
- **Ardo litroak** bost pezeta balio zuen.
- **Litro ardoak** bost pezeta balio zuen.
- Orain ehun urte, **esne litroak** 25 pezeta-zentimo balio zuen.
- Orain ehun urte, **litro esneak** 25 pezeta-zentimo balio zuen.

Testuetan, alabaina, **gaia** + **unitatea** da hurrenkera usuena:
patata kiloa.